

B

BARREN

“Bada ordua aldaketarako”

Reiner Marron eta Carlos Otermin



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria !



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak

- Credikutzarekin ordaintzeko erraztasunak



Instalazioak

- || Txirbilaren garraio eta tratamendua.
- || Prentsa hondakinen erauzketa.
- || Injekzio isurbideen bilketa.

Ekipamenduak

- || Txirbil, prentsa eta makina atalen garraioa.
- || Likido iragazketa
- || Edukiontzia iraultzekoak


COMETEL
SYSTEM

Albitun poligonoa 8 - 159 Posta-kutxa - E-20870 ELGOIBAR - (Gipuzkoa) - España - Tel.: +34 943 741 662 - Fax: +34 943 740 950 - E-mail: cometel@cometel.net

www.cometel.net

Kako

Euskarak biziraupen nekeza izango du, seguru, lparaldean. Ekonomikoki eta demografikoki, desoreka itzela dago kostaldearen eta barnealdearen artean. Eta Benito Lertxundiren kantuetako Zuberoari, hegoaldeko abertzaleon paradisu mitifikatuari, etorkizunetik baino iraganetik gehiago gelditzen zaiola ematen du. Hala ere, guk Hegoaldeko norberanistok begiratzen jakingo bagenu antzemango genuke badirela basamortuaren errailetan isilpean denbora luzez diharduten erresistenteak. Kontutan hartzeko moduko ibilbideak.

GFAM-Lurra elkarte da horren adibide. Nekazaritzarako lurrak kolektiboki erosi eta lur horien espekulazioari aurre egin nahian sortu zen elkarte hori 1979an. Baserritar gazteei instalatzen laguntzea, baserritar ofizioa bultzatzea eta Euskal Herriko baserri lurrak ahalik ondoen kudeatzea izan dira, hasieratik jarritako helburuak. "Lurrak ondasun kolektiboa izan beharko luke, baserritarren esku jarritako lan-tresna" dela diote. "Gaur egun, 1.700 bat pertsonak osatzen dute" eta orain arte "12 ekintza burutu ditu, hauen artean eraikinik gabeko 8 baserri osoren eskuratzeta", www.gfam-lurra.org webgunean irakur daitekeen bez.

Ainharbeko (Zuberoa) Kako baserriaren aferan buru-belarri sartuta dabilta egunotan elkarte horretako kideak.

Sei baserritar epaitu dituzte, aipatutako baserriaren segida bertako baserritar gazte bati zegokion arren, eskubide hori kendu ziotelako protesta egiterakoan, jendarmeekin izan zituzten liskarreatatik. Horra erresistenteak.


Guk ere, hemen bizi dugun baserri munduaren gainbehera negargarria gelditzeko zerbait egin beharko genukeen ustekoa naiz. Administrazioak garbi erakutsi du hainbeste urtetan hortik nekez espero dezakegula ezer. Eta ez dut uste hau baserritarren arazoa bakarrik denik.

Enetz Ezenarro



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituzte gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Baserriaren gainbehera negargarria gelditzeko zerbait egin beharko genuke".



- Elgoibar eta Mendaroko telefono guztiak
- Tren eta autobus ordutegiak
- Farmazien txandak
- 2008ko egutegia
- Elgoibarko mapa

**Gida
Komertziala
on line**

**Egin klik
eta
ikusiko duzu**

www.elgoiBARREN.net



“Jendeak
planto egin
behar dio
salbuespen
egoera honi”

IÑAKI

ODRIOZOLA

EAE-ANVko KIDEA

Hamalau urte zituenetik dabil militantzia politikoan eta, bere ustez, ezker abertzalearekin errepresio bidez behin eta berriz bukatzen saiatu badira ere, “behin eta berriz ezin izan dute”. Garzonek EAE-ANV alderdiari ateak itxi dizkio martxoaren 9ko hauteskundeetan parte hartu ez dezan, baina ezker abertzaleak “abstentzio aktibora” deitu du. Elkarrizketa honetan, Iñaki Odriozolak errepasoa egiten dio gaur egungo egoerari “azken 30 urteotako hauteskunde antidemokratikoenei” begira. Autokritika ere egin dute bake prozesuan “guztia ipini” ondoren. Negoziazio-mahaian izandako esperientzia baliagarria izango zaielakoan dago hurrengo bake prozesuan “nondik hasi” jakiteko.

Garzonen autoak bertan behera laga ditu EAE-ANVren jarduerak. Zein hausnarketa egiten duzue?

Euskal Herriak bizi duen defizit demokratikoa oso larria da. Egoera honek izen bat du: salbuespen egoera. Herri honi independentziarako bidea ixtea du helburu. Euskal jendarteak gero eta gehiago eskatzen du aldaketa politikoa, egun indarrean dagoen marko politikoak (autonomien estatua) ez duelako asetzen herritarren nahia. Gainera, aldaketa horrek lurraldetasunean eta erabakitze eskubidean oinarritu behar duela inork ez du zalantzan jartzen, jada. Eta hori espainiar Estatuak badaki. Ondo dakite euren konstituzioaren kateekin apurtu behar dutela.

“PNV, EA eta EB-Aralarrek gauza bat esan eta kontrakoa egiten dute”

Espero zenuten erabaki hori?

Negoiazio prozesuan esparru demokratikora heltzeko proposamena jarri zuen mahai gainean ezker abertzaleak. Hego Euskal Herriko lau herrialdeetarako autonomia bakarra, eta aukera guztien artean independentzia hitza jasotzea proposatu zenean, PNVk eta PSOEek bat egin, eta mahaitik altxatu ziren. Une horretan PSOEek mehatxu egin zien ezker abertzaleko ordezkariak garesti ordainduko zutela ausardia hori. Eta erakutsi dute edozertarako gai direla: ilegalizazioak, tortura kasu ankerrak...

Abstentziora deitzen duzue, zein mezurakin?

Hauteskunde hauetan –azken 30 urteotako antidemokratikoenak–, abstentzioa eskatzen dugu. Ezin dugu parte hartu pantomima horretan. Euskal jendarteak planto egin behar dio salbuespen egoera honi. Milaka eta milaka gaude Euskal Herrian egoera honekin nazkatuta. Martxoaren 9an marko demokratikoari baietz esango diogu, independentziari baietz esango diogu. Eta salbuespen egoerari ezetz, ilegalizazioei

ezetz, errepresioari, eta iruzur gehiagori ezetz. Horretarako, abstentzio aktiboa iruditu zaigu onena. Ez gara etxean geldituko. Parte hartzea zapaltzaile edo morroi bezala jokatzeari da.

EAE-ANV egunak kontatuta ditu?

EAE-ANV ez da gaur goizeko alderdia. Apirilean 77 urte beteko ditu. 1936ko altxamendu faxistan, eta ondorenean faxismoaren aurkako borrokan gogor jardutea tokatu zitzaion. Egoera gogorak, hildakoak, presoak izan ditu lehen ere, eta beti aurrera egin dugu. Gaur egunean ere, faxismoaren aurka borroka egitea tokatu zaio, eta ilegalizazio berriek ez dute geldiaraziko.

Irakurri dituzu autoak dituen 259 orrialdeak?

Nahikoa literatura on badago, Garzonen muntaia horiek irakurtzen denbora galtzeko. Abokatuek irakurri dituzte, eta amesgaizto bat besterik ez dira. Irizpide politikoz jositako autoak. Judizialki zaborra, baina ez zaie inporta. Denak balio du independentismoaren kontra.

Rajoyk ala Zapaterok irabazi, zuen egoerak berdin jarraituko du?

Guretzat berdinak dira, Euskal Herriarekiko duten jarrera bera delako. PPK ez du Estatuaren erreformatu nahi, eta PSOEek azaleko erreforma egin nahi du benetan ezer alda ez dadin, betiere konstituzioaren mugen barruan. Bi alderdi hauek badakite euskal jendartearen aldaketaren motorek ezker abertzalea dela, eta horregatik zapuztu nahi dute.

Zapateroren inguruan zer iritzi duzu, bake prozesuaren inguruan izan duen jokabidea dela-eta?

Zapaterok agerian utzi du ez zuela benetako prozesu bat aurrera eramateko borondatearik. Hasieran pentsa genezakeen ezin zuela PPren presioarengatik, baina aukera izan duenean ez du bete hitzartutako akordioa. Estatuaren azaleko erreforma egitea baino ez zuen helburutzat, herri honi erabakitze eskubidea eta tresnak onartu gabe. Horretarako, gainera, lotsagarriena da PNVren laguntza izan zuela prozesuan zehar, eta ondoren ere ikusi dugu euren arteko sintonia.

Autokritikarik egin duzue?

Noski, autokritika egin da ezker abertzalean. Prozesuan guztia ipini genuen gure aldetik. Marko demokratikoaren proposame-

na mahaian jarri genuen guztiontzako baliagarria izan zitekeelakoan, baina besteak euren interesak defendatzera joan ziren. Ez genuen lortu gatazka parametro politikotara behin betiko ekartzea, eta ez genuen lortu benetan herritarren parte hartzea ahalbidetzea. Guztiok negoziazio mahaian zain gelditu ginen. Hala ere, aurreratutakoa asko da, eta hurrengo batean nondik hasi badaukagu.

Ezker abertzalearen ahotsa isilezina da?

Ezker abertzalearekin, behin eta berriz saiatu dira errepresio bidez bukatzen, eta behin eta berriz ezin izan dute. Ezker abertzalearen proiektua, Euskal estatu independente euskaldun eta sozialista, oso hedatua dago jendartearen, eta, nahiz eta min egiten diguten eraso guzti hauekin, ez gaituzte isilduko. Egunero-egunero jende berria biltzen da proiektu honetara, eta, egunero-egunero, jende berriak konpromisoa hartzen du herri honekin.

“Ez gara etxean geratuko. Parte hartzea, zapaltzaile edo morroi bezala jokatzeari da”

Udaleko beste partiduen sostengurik izan duzue azken erabakiak eta gero?

Benetan harrigarria da beste alderdien jokabidea, gauza bat esan, eta kontrakoa egiten baitute PNV, EA eta EB-Aralarrek. Alderdien legearen aurka omen daude, baina gero gure zinegotzi postuak lapurtzen dituzte. Apartheidaren kudeatzaileak dira. Egoera ez demokratikoa irentsi egin dute, boterea ematen dielako. Gainera, badakite gaizki egiten ari direla (guri hori onatzen digute), baina eskuak loturik dituztela diote, batez ere herrietako jeltzaleek. Begira bestela Ondarroan zer gertatu zaien bertakoei. Euren laguntzarik gabe ez litzateke posible horrelako egoera bat. Hauteskunde hauetan ere, begira daude Madrildik zer mozkin lortuko.

Bizi osoko adiskidetasuna erretratuetan jasota

Maite Vallejo, Karmele Gorostiza eta Mirentxu Beloki txikitatik dira lagunak. Adiskidetasunak eta maitasunak baten ditu hiru elgoibartar hauek eta heriotzera arte lagunak izango direla zin egin dute. Erretratuetan islatzen dute adiskidetasun hori. Umetatik gaur egunera arteko eboluzioa jasotzen dute argazkiek. Pertsonak eta ingurunea izugarri aldatu dira, baina adiskidetasun sentimendua lehenengo eguneko berbera da.

Urtarrilean atara dute Maite Vallejok, Karmele Gorostizak eta Mirentxu Belokik euren adiskidetasuna islatzen duen azken argazkia eta hemendik aurrera urtero elkartuko direla aitortu digute. Lau urte zituztela atara zuten lehenengo erretratu Plaza Txikian. Eskola Nazionalan ikasten zuten garai hartan hiru neskatila horiek. Jolas-ordu batean Maria Teresa de Las Armas zaintzailearekin atara zuten argazkia 1940an. Ebaristo Izeta bandako zuzendari elgoibartar eza-gunaren alarguna da Maria Teresa. Kanariarra da bera, baina sarri etortzen zen El-

goibarrera, Satur maistra bisitatzera. Eskola Nazionalako irakaslea zen Satur eta oroitzapen oso onak dituzte hiru emakume hauek: "Euskaraz ezin izaten genuen hitz egin, baina Satur maistra oso maitagarria zen". 96 urte inguru izango ditu gaur egun Maria Teresak: "Kanarietan bizi da, baina etxea Elgoibarko irudiz jositak dauka".

Maite Vallejo 21 urterekin ezkondu zen eta bere despedida egunean berriro elkartu ziren hiru neskak eta Merkatu Plaza zaharraren aurrean egin zuten erretratu. Lekuz aldatu ziren orduan, eta ez-

kongai erdian jarri zuten. 1957. urtea zen.

Gaur egun 50 urtera iristea ez da harritzekoa, baina lehen ez omen zen edonor iristen eta argazkia egiteko aitzakiaztat erabili zuten euren 50. urtebetetzea. Hamar urtean behin elkartu eta erretratu aterako zutela erabaki zuten eta 60 urterekin gauza bera egin zuten. Azkena joan zen hilean atara zuten. 70 urterekin ezin izan ziren elkartu eta 72 egin dituztenean atara dute. Aurrerantzean urtero elkartuko direla esan digute, leku berean eta postura berean.



Maite, Karmele eta Mirentxu...

2008



1996



1986



1957



1940



2008ko urtamilean atera dute azken argazkia 72 urterekin.

1996an, 60 urterekin atera zuten erretratu hau.

50 urte egitea ez zen lehen meritu makala! Berriz elkartzeko aitzakia bikaina.

Maiteren despedida egunean atera zuten erretratu hau. Hemen ezkongala erdian.

Plaza Txikian, 4 urterekin. Maite, Karmele eta Mirentxu. Zaintzailea: M^o Teresa de Las Armas.

...urteak pasatu arren, leku eta postura berean beti adiskide



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Iñigo Palominori eskutitz irekia

Api, Palo: aspalditik nuen buruan zuri eskutitz hau idaztea, baina pasa den asteko BARREna ikusi eta gero ezin gehiago atzeratu. 8. mailan, oker ez banago, eztabaida lanketa bat egin genuen, gela-koak hainbat taldetan banatuz. Gai bat ezarri eta aldekoen eta kontrakoen iritziak landu behar genituen. Talde berean egotea egokitu zitzaigun, zu kontra eta ni alde. Gaia: energia nuklearra.

Gerora apenas izan dugu elkarren berri, baina orain berriro topo egiten dugu, nor bere buruak agintzen dion mahaiaren aldean eseriaz: zu AHTren alde ta ni Ynposaketaren aurka. BARREn botatakoak hartuko ditut kontuan.

Informazioa zabaldu dela diozu, orduan zergatik uko egin eztabaidetan parte hartzeari? Gezurra bada, Elgoibarren mahinguru bat egitea proposatuko nizuke, BARREnek moderatzaile lanak egin dezake, nahi badu. Datuen gerrak ez duela merezi diozu, bai, datu batzuk ezkutazen badira, egia da eguneko 1.000 kamioi kenduko dituela, urtero 3.000 kamioi gehitzen direnean. Horren ardura bizi dugun gizarte eredu onena da.

Zergaitik Andaluzian Altzolako ura edan eta hemen Sierra Nevadako? Alemaniara joatea? Oktoberfestera? Edota apirilaren 30an? Alemania kontuan hartzeko, hemengo gizarte laguntzak, etxebizitzak, gazteria, lan mundua... pareko jarri beharko genituzke. Hauteskondeek ematen dute txeke zuria (despotismo ilustratua?), zergatik galdetu herriari

ezer, kontsulta horren moduan? Egin egin beharrekoak eta kitto.

Ta zuen baserri paretik igaroko balitz, ze? Garapen iraunkoreko aurpegi garbitzeak utzi eta gizarte eredu hau aldatu beharra dakagu, urrengo belaunaldiek porlancezko Euskal Hirira kondenatu aurretik, Euskal Herriak izaten jarrai dezan.

Ondo izan.

P.D. Bilbora juten zeranerako, AHT ordaintzeari uko egiteko orriak badituz nahi bozu.

Nestor Fuente ☺

Iñigo Palominori:

Eztabaida publikoa ukatzeaz gain, Euskal Y-aren inposaketaren aurka gaudenok kriminalizatu nahian ari da administrazioa, hainbat hedabide lagunduta.

Gehiengoa alde? Usaimen fina, non-bait! Eusko Legebiltzarreko %85 egitasmoaren alde egoteak ez du esan nahi herritarrak alde daudenik. Gogora ezazu herriaren gehiengo zabalena OTANI ezetz esan zionean, alderdi politiko gehienek eskatzen zutenari muzin egin ziotela. Baliteke hau izatea herri-kontsultak galarazteko arrazoia.

Propaganda besterik ez dut ikusi. Polita, modernoa eta berdea baina zehaztasun gutxikoa. Makina bat km falta dira EH osoan hartuko duen 460 km-ko luzera ager dadin. Zelan geldituko da Udalaizteko ekosistema, esaterako? Km bakoitzeko 15.000 m³ hondakin sortuko denez, non kokatuko dira zaborteak? Eta harrobi berri mordoa? Agian, jende-

ari informazio guztia emanez gero, "aurrerapen" horren prezioa ezagutzen bado, ez duela ordaintzerik nahi erabaki lezake.

Hirien arteko komunikazioa sendotuko du. Baietzean nago. Baina erdian diren herri, baserri, bizimodu, mendi, erreka, akuifero, ibar, landare, animalia, naturgune eta paisaiaren bizkarretik egingo duela ere bai, ordea.

Ez bada erakitzen Europatik at geratuko ei gara. Ziur? Ez al dago AHTrik nahi ez duen herririk? Anima zaitetz eta zoaz Italiara. Batek, bota zuen purrustada hura ekarri dit gogora: "Lemoiz ala kobazuloak!". Beharrezkoa bada, erakuntza kudeatuko dutenen patrika asezinentzat izango da.

Ez gara datuen arteko gerran hasiko, ados baikaude. Eredu ekonomiko xahutzaile hau ez bada aldatzen, denok dakigu garraioaren arazoa larriagotuko dela eta AHTk ez duela konponduko. Gaur egun badago hiriburuak lotu eta merkantziak eramaten dituen RENFEren trenbiderik. Zertarako beste bat? Gainera, AHTk ezin ditu salgaiak 90 km/h abiadura baino handiagoan garraiatu.

Bada auzi bat ia erabateko adostasuna duena, bai politikan, bai kulturean... Baita mundu osoko adituen artean ere. Praileaitz haizulua eta bere ingurua behar den moduan babesteko eskariak ari naitzaizu. Bada, Amenabar enpresak, EAJren laguntzarekin, harrobia esplotatzen/leher egiten jarraitzen du.

Justo Arriola ☺

Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Zuhaitz
Gurrutxaga

Aupa Unai!
Nork esango zidan

halako batean neroni izango nin-

zzenik BARREneko Zozoak beleari famatu honetako idazle zintzotako bat. Abenduan jaso nuen astekaritik deia, eta bi aldiz pentsatu gabe eman nien baiezkhoa. Orduan, nire solaskide behar-ko zuen bikotearen bila hasi ziren eta hara non aspaldiko ezagun bat daukadan orain parez pare. Lehen begiratuan, kirola ogibidetzat izatean bat gatoz. Baloia inguruan daramagu bizitza erdia. Batak hankaz baloia jotzea du debeku, besteari eskuaz jotzea galerazten diote aldiz. Baina ahal den heinean norbere saretik aurkariak baino baloi gutxiago ataratzek ematen dizkigu pozak eta xoxak.

“Gaztelako lursail lau eta zabaletatik idatziko dut datozen hilabeteotan”.

Erronka polita deritzot aurrean daukaguna. Neska ilehori politek eta kirolariek (futbolariak behinik behin), burua zerrautsez bete dauskatela dioen topiko zahar horri astindu eder bat emateko aukera, hara. Badakit bai, Bidasoa ibaiertza atzean utzi eta Urko mendia magalean hartu zaituztela esku zabalik aurtan. Zorte onena opa dizut, nola ez, ibilbide berri horretan.

Nik, aldiz, Gaztelako lursail lau eta zabal hauetatik idatziko dut datozen hilabeteotan, Zamoran bainabil ostikoka joan den udatik hona. Toroko ardo beltz, Fuentesaucoko garbantzu edota Zamora bertako txerrikirik nahi duenari, enkargua egiteko prest izango naiz gainera. Laurehun kilometrotara, bata han eta bestea hemen, bata hemen eta bestea han, izango dugu bai istorio eta konturik datozen idatzietan jarduteko. Bitartean ondo bizi.



Unai
Arrieta

Baloia, bizi gaituen zoroa, Zuhaitz. Handitxikian ezberdin zure baloia eta nirea. Zureak munduan inoiz ezagutu den mobilizaziorako gaitasun handiena du, izugarriko jendetzak aho batez gurtzen du igandero-igandero.

Pasioaren eta negoziaren iturri da, herriaren opio. Nire baloi txikiak badu nahikoa lan taldeetan egitura sendo eta profesionala sortzen, badu nahikoa lan aurrekontuei eta jarraitzaile desanparatuei eusten. Izan txiki, izan handi, pilotaren atzetik biok, oin edo esku, eginahalak eginez, emozioen dantzan, zenbat kilometro!

Gaztelan egina duzu azken geldialdia baina ez ziurrenik behin betikoa, txuri-urdina erantzit zenuenetik ezagutu dituzu penintsularen hego eta ipar. Nik neure kirol bidaian Afrikan ere egin nuen egonaldia. Gaur hemen dugu zita, jokatzeko zapatilak erantzita, arkatza eskuan, orri zuria aurrean.

“Kirolarion esanak antzuak izan ohi dira ia beti”.

Kirolarioi irriti edo telebistetan, egunkarietan tarte zabalak eskaintzen dizkigute, gure esanak, ordea, antzuak izan ohi dira ia beti. Ez gara sarri jende letradunaren, ikasiaren eta jantziaren eredu.

Bota digute desafioa, Zuhaitz!


Esperientziei hitzak jartzea, gure mundutxoa papereratzea, inoiz heldu ez diodan kirol ariketa. Gogoz nator ordea. Zuk Gaztelatik adina nik ere izango dut zeresanik haizeak kontra inoiz baino gogorrago jotzen duen gure Euskal Herri honetatik.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Zine ikusleen beherakada dela eta, domeka gaueko saioa kenduko dute apiriletik aurrera.

Badaukazu zinera joateko ohiturarik?



Mª Jose Mateo

49 urte, etxeko andrea

Ez, telebista digitala daukagu eta etxean ikusten ditut pelikulak. Nahiago dut pelikulak berandu ikustea, zinea ordaintzea baino. Pelikulak oso tentagarria izan behar du ni zinera joateko.



Julian Conde

68 urte, jubilatua

Ez, pelikulak etxean ikusten ditut, askoz erosoagoa da. Etxeko telebista zuri-beltzean zenean joaten ginen zinemara, baina orain ez dago beharrik. Hori bai, iragarkiek amorratu egiten naute.



Ana Carolina Lodeiro

28 urte, harreman publikoak

Lehen bai, baina umea izan dudanez ez naiz joaten. Hala ere gustatzen zait eta batzuetan amamarekin lagatzen dut umea zinera joateko. Antzerkiak ikustera ere joaten gara Herriko Antzokira.



Koldo Errazti

10 urte, ikaslea

Bai, koadrilan joaten gara domeka arratsaldeetan. Zapatuan diru asko gastatzen badut, ez zait zinerako dirurik geratzen eta Internet bidez jaisten ditut pelikulak etxean ikusteko.

10
eko
TXIKIAN



Mª ANGELES GABILONDO

Dendaria

1. Alkatea bazina, zer egingo zenuke di-da batean?

Bidegorria, oinez lasai-lasai ibiltzeko.

2. Azken aldian egin diren obretatik, zein da gutxien gustatu zaizuna?

Nire ustez asfalto gehiegi dago herrian.

3. Egia da jendea oso gutxi mugitzen dela?

Ez, kontrakoa esango nuke. Askok mugitzen da herriko jendea: bidaiak antolatzeko, elkarrekin osatzeko...

4. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?

Txikitan bainatzen nintzen eta gaur egun ez. Etorkizunean ikusi egin beharko da.

5. Aukeratu egun bat lagun bat gure herrira gonbidatzeko.

Gabon zahar eguna.

6. Aukera nahikoa dago Elgoibarren kirola egiteko?

Bai, gehiago egin liteke, adibidez frontoia hobetu.

7. Herri euskalduna iruditzen zaizu gure herria?

Bai, baina hobetu liteke. Nik ahal dudanez neurrian egiten dut euskaraz. Saiatzen naiz euskaraz mintzatzeko, baina gutxiegi egiten dut. Euskaldunzaharra naiz. Zaila da euskara.

8. Ahal izango bazenu, joango zinateke beste herriren batera bizitzera?

Ez dut uste, Mendaron ere bizi nintzen eta bietan gustura egon naiz. Elgoibar herri alai eta txikia da. Denok elkar ezagutzen duguz; herri hurbila da.

9. Behar duzun guztia daukazu herrian?

Ez, baina ondo konpontzen naiz. Kanpora joaten naiz dendak ikustera, ezagutzera. Denda dudanez, komeni da besteek zer egiten duen jakitea. Garraio publikoa erabiltzen dut kanpora joateko; trenari bai, autobusa gutxiago.

10. Zein da elgoibartarrik famatuena, zure ustez?

Momentu honetan Joseba Etxeberria datorkit gogora, baina beste batzuk ere ezagunak dira: Uxue Alberdi...



Andiikanotik Maltzagara doan bidean lokatz asko egoten da:

“Jende asko ibiltzen da Andiikanotik Maltzagara bitartean paseatzen eta bidea ez dago modu onean. Toki batzuetan porlana botata dago eta hor ez dago arazorik. Baina bideko zenbait zatitan ez dago porlanik, lurrezko bidea da eta euria egiten duenean lokatz mordoia egoten da. Oinezkoak ezin izaten dira pasatu. Pena da hori horrela edukitzea, izan ere, leku egokia da paseatzen ibiltzeko eta eskertuko genuke bidea ganoraz jarriko balute. Elgoibarren ez daukagu paseatzeko leku askorik, eta dauden apurrak zaintzeko eskatuko nioke Udalari. Badakigu ingurune honetan bide-gorria egingo dela, baina ordura arte, bidea oinezkoentzat egokitzea beharrezkoa dela iruditzen zait”.



Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12




Aitzolako autobus geltokiko markesina konpondu dute:

“Eskerrak eman nahi dizkiogu Udalari autobus geltokiko markesina konpontzeagatik”. Zubibai Elkartekoek bestalde, Iñigo Palomino txalotu nahi dute BARREn egindako adierazpenengatik: “Zubibai elkarteko kideak benetan poztu ginen Palomino jaunaren hitzekin: ‘Garraio publikoaren aldeko apustua garbia da’. Gu ere garraio publikoaren aldekoak gara, eta mezu horren aurrean pozik eta itxaropentsu gaude, Eusko Trenbideak enpresaren helburuek eta gurek bat egiten dutelako. Askotan eskatu izan dugu Aitzolako tren geltokiak beste geltokiek dituzten geldialdiak izan ditzan, eta ikusten dugu gure helburu horretatik hurbilago gaudela orain. Zorionak, Iñigo, eta segi horrela!”.

Berdegunen babestuak

Iturria: Europarc 2005 urtekaria



euskadin bizi naiz ni.
 zu, non bizi zara?



Santa Klarako zeharbidearen jabetza eskatu dio Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari

Autoak abiadura handian ibiltzen direla salatu dute auzoko bizilagunek

Udalak Santa Klara zeharbidearen jabetza eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, bertako bizilagunen eskaerei erantzuna eman ahal izateko helburuarekin. Aldundiak eskaera hori onartuko balu, Santa Klara auzoko errepideak kale kategoria hartuko luke eta Elgoibarko Udala izango litzateke arduraduna.

Autoak ziztu bizian

Santa Klarako bizilagunak kezkatuta daude gidari asko ziztu bizian ibiltzen direlako ingurune horretan. Gainera, Foru Aldundiak jarri dituen trafiko seinaleak ere ez dira trabesia horretarako egokienak, auzokideen arabera. Izan ere, autoak aurreratzea baimentzen dute 50 metroko zabalera duen bide zatian eta erdi-erdian zebra-bide bat dago.

Arrisku hori dela eta, abiadura murrizteko neurriak eskatu dituzte Santa Klarako auzokideek. Abiadura mugatzen duten seinaleekin nahikoa ez bada, lurreko bandak edo beste neurri gogorragoak hartzeko proposamena egin dute.



Altzolan ere abiadura arazoa

Aspaldi salatu zuten Zubibai elkarte-ko kideek Altzolan ere autoak abiadura handiegian ibiltzen direla eta Foru Aldundia hasi da arazo horri irtenbidea emateko lanetan. Alfredo Etxeberria alkateak azaldu du Foru Aldundiko arduradunak harrিতa gelditu zirela ingurune honetan dagoen trafiko eta abiadura handiekin.

Beraz, neurriak hartuko dituzte. Oraindik ingurunea ikertzen ari da Foru Aldundia, baina bidea estutzeko aukerak indarra hartu du azkenaldian.

Horrelako ekimenak beste leku batzuetan ere egin dituztela aipatu zuen Alfredo Etxeberria alkateak, Aginagan, esate baterako, eta badirudi arazoa murriztu egin dela.

Sutea izan zen Olasoko Kasalzer enpresan martitzenean



Olaso industriaguneko Kasalzer enpresan sutea izan zen martitzenean. Herrizaingo Sailak jakinarazi du lapurrek nahita piztutako sutea izan zela. Bi ordenagailu eta dirua lapurretan egin zituzten, rotaflexarekin kutxa irekitzea lortu ondoren. Goizeko 5:00ak aldera jaso zuen abisua Ertzaintzak eta sua alboko garajeetara eta jatetxera hedatu aurretik itzaltzea lortu zuten suhiltzaileek. Enpresako biltegi barruan zeuden Lexus eta BMW autoak zeharo kiskali ziren.

Bideoa eta argazkiak ikusteko:
www.elgoibarren.net

Irudia **Zorroztailea**



Ez da ohikoa gaur egun zorroztailea herriko kaleetan ikustea. Aste honetan egin digu bisita, bere ohiko soinuarekin ezagutu dugu eta herritar bat baino gehiago gerturatu zaio guraizak edo labanak zorrozteko. Bere bisitarekin euri tantak hasi ziren eguaztenean. Baina ez zuen askorik bota, eta kalea busti ere ez zen egin ia. Otsailean euri gutxi egin du, gutxiegi akaso. Zorroztaileak gehiagotan egin beharko liguke bisita, urtegiak ur faltan ditugu-eta!

Eguna **Martxoak 8**

Emakumeen Nazioarteko eguna ate joka daukagu eta, urtero bezala, hainbat ekintza antolatu ditu Haizea emakume taldeak. Bihar, zapatua, Agurtzane Sololuzeren erakusketa inauguratuko dute Kultur Etxean. Martxoaren 16ra arte egongo dira bere lanak ikusgai, astelehenetik ostiralera 19:00etatik 21:00etara. Bestalde, Morkaiko mendizale elkartearekin batera, Okinatik Sasaeta mendira egingo dute irteera martxoaren 9an. Emakumearen Eguneko ekintzei amaiera emateko, martxoaren 14an bideo forum-a izango da Kultur Etxeko hitzaldi gelan. *Lios de Gray* pelikula eskainiko dute eta hizlaria Eskarne Larrinada izango da.

Lekua **Errosario kalea**

Itxura berria hartuko du Errosario kaleak aurrerantzean. Atzo goizean bota zuten Belokineko etxea. Zarata eta hauts artean esan zien agur herriari eta herritarrei etxebizitza zaharrak eta laster ongi-etorria egin beharko zaio etxebizitza berriari. Denbora ez da alperrik pasatzen.



1956an jaiotako en kinto bazkaria

1956an jaiotako gipuzkoarrek 73 urte egingo dituzte aurten eta hori ospatzeko, Zarauzko Aiten Etxe jatetxean egingo dute bazkaria martxoaren 16an. Eguerdiko 12:30ean meza izango da Frantziskotarren elizan, Azpillaga eta Intxausti bertsolariekin. Ondoren, bazkaria egingo dute. Ospakizun horretan parte hartzeko interesa duten Debabarreneko bizilagunek ondorengo telefonoetan eman dezakete izena: 943 191 238 (Iñaki Elosua) edo 943 120 536 (Pedro Laka).

IMHko Ingeniaritza Eskolan ate irekiak

Ate irekien jardunaldia izango da bihar, martxoak 1, IMHko Ingeniaritza Eskolan. Goizeko 11:00etatik aurrera, ikastetxea bisitatzeko aukera izango dute bertara gerturatzen direnek.

Umeentzako jolasak eta tailerrak Plaza Handian

Atxutxiamaiak aisialdi taldeak antolatuta, umeentzako jolasak eta tailerrak izango dira bihar zapatua, goizeko 11:30ean Plaza Handian. Eskulanak, aurpegia margotu, marrazkiak eta muralak egingo ditzute, besteak beste, bertaratzen diren umeek. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza 1 eta 2. mailakoentzako ekintza izango da.

Aste Santuan, bestalde, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza 1 eta 2ko umeentzako udaleku irekiak izango dira. Horrez gain, LHko ikasleentzako hiru irteera antolatu dituzte: Martxoaren 26an Sastarrain baserri eskolara joango dira, hilaren 27an Lekunberriko soka zirkuitora eta 28an Irungo Plaiaindi parke ekologikora. Ekintza horietan parte hartzeko Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen eman daiteke izena. Informazio gehiago: 943 741 626 (Ainara Lasa).

Gure berbak

Aditza (7): NOR-NORK plurala

Gaurkuan, objetua pluralian debekak ikusiko dittugu.

Egixa esan, pluralaren ezaugarria (pluralgillia) desagertzia ere nahiko arrunta da paradigma honetan (eta beste batzuetan) gure herrixan: *bost lagun ikusi dittue mendixan erabiltzen da, baiña baita bost lagun ikusi debe ere; NOR-NORI saillian ere, berdintsu: *lau txanpon jausi jako lurrera da normalena, baiña esaten da *lau txanpon jausi jako ere.***

Guk, hala ere, aditz-forma erabillixenak jasoko dittugu hemen. Honek dira:

- Neutruak: *Lagun batzuk **ekarri dittut** autuan Donostiatik, **ekarri dittu** harek, *guk **ekarri dittugu**, zuk **ekarri dittuzu**, zuek **ekarri dittuzue**, hárek **ekarri dittue**.**

- Hikakuak (giz.): *Lagun batzuk **ekarri jaittuat** autuan Donostiatik, *hik **ekarri dittuk**, harek **ekarri jaittuk**, *guk **ekarri jaittuagu**, hárek **ekarri jaittue**.***

- Hikakuak (emak.): *Lagun batzuk **ekarri jaittunat** autuan Donostiatik, *hik **ekarri dittun**, harek **ekarri jaittun**, *guk **ekarri jaittunagu**, harek **ekarri jaittune**.***

Ekarri **dodaz** eta halakuak ez dira arruntak Elgoibarren, eta berdintsu beste aditz trinko hau ere: *pozik **gagoz** entzuten da zenbaiten hizkeran, baiña Elgoibarren *pozik **gaude (gaure)** da arrunta.**

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1961

Miren Bergarak laga digu aste honetako erretratu zaharra. Kultur Etxe aurrean ateratako argazkia da.

Emakume koadrila polita zeukaten garai hartan elgoibartar hauek eta noizean behin elkartzeko ohitura zeukaten egun pasa joan edo bazkariak egiteko.

Urteetan eutsi zioten ohitura horri, baina gero, bakoitzak bere bizimoduari jarraitu zion eta gaur egun oso gutxitan elkartzen omen dira.

Denbora ez da alperrik pasatzen eta erretratuak argi erakusten digu hori. Dotore ageri zaizkigu emakume hauek, baina euren jantziek ez daukate gaur egungoekin zerikusirik.

Gogora ditzagun zeintzuk diren emakume elgoibartar hauek: ezkerretik eskumara: Rosa Mari Muñoz, Elena Tuero, Maria Luisa Iribarren, Maribel Atxaorbea, Miren Bergara, Isabel Muruamendiaraz, Maite Manterola, Arrate Etxaniz eta Pakita Murua (+).



ELENA
ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

25BIEMH



Martxoaren 3tik 8ra bitartean izango da aurten Erreminta-Makinaren Azoka Barakaldon. BEC eta AFMk antolatutako feria honen 25. edizioa izango da. Ohikoa den moduan, BEC aretoan egongo da zer ikusi. Hasieratik bertatik ibilbide geldiezina eduki du. Horregatik, gaur egun, sektore honen Europako hirugarren azoka garrantzitsuena da adituen arabera, Hannover-eko EMO eta Milaneko BIMUren atzetik.

Guztira, 30 estatutako 1.700 enpresa baino gehiagok izango du ordezkaritza aurtengo azokan, eta horietatik 160 inguru gipuzkoarrak izango dira. Debabarrena eskualdeak leku nabarmena izango du BECen eta Elgoibarko herria ez da oharkabeen pasatuko. Gure herriko hogei enpresa joango dira Bienalera. Aurtengo nobedadeetako bat Erreminta-Makinaren museoa izango dugu, izan ere, estreinakoz izango baitu lekua BECen. Elgoibarko museo honek hamar urte egingo ditu 2008an eta hori ospatzeko modu bikaina izango dute BECeko azokan. Horrez gain, azokak irauten duen artean, ate irekien jardunaldiak egingo ditu museoak eta erremintari batek nola lan egiten duen ikusteko aukera izango dute museora gerturatzen direnek.

BIENALEAN EGONGO DIREN ENPRESA ELGOIBARTARRAK:


- | | | |
|---------------------------------|-----------------------------|-------------------------------------|
| ◆ Burgelu S.L. | ◆ Etxe-tar S.A. | ◆ Kondia |
| ◆ Cic Margune | ◆ Unceta ferreteria | ◆ Lan-flat |
| ◆ Comersa | ◆ Coitek System S.L. | ◆ Sariki Metrologia |
| ◆ Cometel S.A. | ◆ Goiti | ◆ Pixel Sistemas |
| ◆ Danobat | ◆ Goratu | ◆ Pneumax S.A. |
| ◆ Emena S.L. | ◆ Hre-Hidraulic | ◆ Lan-Bat tailerrak |
| ◆ Estarta Rectificadoras | ◆ Industrias Metala | ◆ Erreminta Makinaren museoa |




AUTOMATION ORIA[®]




HERREMINTA MAKINA



- ◆ Makina Erreminten egokitze eta konponketa.
- ◆ Armairu elektrikoaren proiektu eta muntaketa.
- ◆ ZEATZ mahai zatitzaileen fabrikazioa.
- ◆ Makinen salerosketa.



www.zeatz.es



Itziar Poligono Industrialia ,C2 Pabilioia Tel.: 943 199 131 - Fax.: 943 199 190
20829 ITZIAR - DEBA (GIPUZKOA)

E.mail.: comercial@automationoria.com

www.automationoria.com



**OIHANA
TELLERIA**
Merkataritza saila



- ◆ **Langile kopurua:** 40.
- ◆ **Enpresaren sorrera:** 1987.
- ◆ **Produkzioa:** Txirbila eta beste hondakin metaliko batzuk tratatzeko makineria eta instalazioak diseinatu, ekoiztu eta instalatu, bezeroen beharren neurrirra.
- ◆ **Esportazioak:** Mexico %20, Frantzia %9, Portugal %5.

Ferriak beti dira garrantzitsuak gure produktuak jende aurrean ezagutzera emateko eta, are gehiago, produktu berriak dauzkagunean. Bezeroei erantzun hobea ematen laguntzen digute.

Kontuan izan behar da, baita ere, hondakinen gestioa gero eta garrantzitsuagoa bihurtzen ari dela, eta enpresa askok hondakin horiek gestionatzeko erantzukizuna dutela. Gu arlo horretan gogor ari gara lanean eta txirbilaren tratamendu eta erreziklapenerako instalazioak garatu eta hobetzea da gure helburu garrantzitsuenetako bat.



**JESUS MARI
ASTIGARRAGA**
Lehendakaria



- ◆ **Langile kopurua:** 380 Elgoibarren (filialekin, 500 denera).
- ◆ **Enpresaren sorrera:** 1954.
- ◆ **Produkzioa:** Artezteko makinak, tornuak, eta zerrak eta taladroak.
- ◆ **Planta produktiboak:** Overbeck (alemania), Newall (UK).
- ◆ **Esportazioa:** %80. Alemania eta Txina, besteak beste.

Daukagun guztia ezin dugu azokan erakutsi, jakina, Danobatek denetik egiten du-eta. Aurten hiru makina Diseinu Onenaren Sari Nazionalera aurkezten ditugu eta azokako gure hiru nobedade izango dira. Aurreko edizioan artezteko makinak saria jaso zuen eta aurten ere artezteko beste bi makina aurkeztu ditugu, bat handiagoa eta bestea zentrurik gabekoa. Beste nobedadea zerra berria dugu. Horrez gain, tornuetan modelo berri bat atara dugu, Estatuan Bilbon aurkeztuko dugu lehen aldiz, eta trenbide sektorearentzat eta sektore eolikoarentzat balio du.

Merkatu nazionala %20koa da, eta guretzat hori merkatu garrantzitsua da, hori dela eta gure erroka azoka honetan. Gure bezero garrantzitsuen bisita espero dugu. Bezeroekin hartu-emanak garrantzitsuak dira eta feria aprobetxatzen dugu bezeroak gure instalazioak ikustera etortzeko eta gure soluzioak eskaintzeko. Azken batean, etxean gaude eta abantaila handia da guretzako.

Danobat taldeak guztira 1.500 metro koadro izango ditu bienalean: arrankeko aldean 1.000 metro koadro eta txapa-deformazio aldean, 500.



**LUIS ORIA
ZABALO**
Zuzendari komertziala



- ◆ **Langile kopurua:** 30.
- ◆ **Enpresaren sorrera:** 1993.
- ◆ **Produkzioa:** erreminta-makinaren birmoldaketa eta konponketa. Plater zatitzaileak eta CNC mahai linealak.
- ◆ **Esportazioak:** %50. Alemania, Txina, Brasil, Holanda.

Automation Oriak erreminta-makinaren birmoldaketa eta konponketa mekaniko eta elektriko alorrean dihardu, gehienbat. Lehengo makinak erosten ditugu, eskuz dabilzanak, eta eraldatu egiten ditugu: teknologia berrietara egokitzen ditugu, CNC zenbakizko kontrol eta guzti.

Erabat kualifikatuta dago gure lan-taldea. Edozein proiektu integrali aurre egiteko gai da, txirbil-harroketa eta deformazio makinaren inguruan bezeroak egindako eskakizun guztiei irtenbideak neurri emateko prestatua.

Geure produktua ere eskaintzen dugu. Plater zatitzaileak eta CNC mahai linealak diseinatu eta fabrikatzen ditugu, hala nola, erreminta-makinarentzako osagarriak. Produktu gama zabala eskaintzen dugu, lan bakoitzaren beharretara erabat egokituta. Sektoreko fabrikatzaile garrantzitsuenak hornitzen ditugu.

Bienalean bezero berriekin harremana izan nahi dugu. Era berean, sektorean finkatu nahi dugu, 15 urte baikabiltza bertan.



Xabier Ortueta

AFMko zuzendaria



Elgoibarko, EAEko edota Estatu espainiarreko enpresen bertute eta erronkak antzekoak omen dira Ortuetaaren esanetan. Martxoaren 3tik 8ra bienalera joatera animatu nahi ditu herritarrak, erosleak eta bezeroak. Zuzentzen duen Espainiako Erreminta Makinen Fabrikatzaileen elkartearentzat ezin garrantzitsuagoa da hitzordua, are eta gehiago BECen dagoenetik.

“Guretzat leku naturala eta aproposa da Bilbao Exhibition Centre”

AFM bienalaren antolatzailea ere bada. Duen erakusleihorik onena da?

BEC izatez munduan dauden erakustazoka guztien artean, erreminta-makina azoka antolatzeko onenetakoa da: zutaberik gabeko pabilioi handi eta garbiak, komunikazio aproposak, zoruaren erresistentzia, aretoaren berezko edertasuna...

Euskal ordezkari garrantzitsua izango da BECen?

Bai, beti bezala. Erreminta-makinaren sektorea, berez, sektore oso euskalduna da. Estatuan ekoizten denaren %75 hemen egiten da. Gipuzkoako erakustokiaren %23 betetzen du...

AFMk zer balantze egiten du erreminta-makina sektorearen inguruan?

Sektorea sendo dago, lan asko egin dute

enpresek. Erronkak ugariak dira, eta benetan latzak, baina garbi daukat aurre egingo diegula. Bestalde, erronkak edukitzea bizirik zauden seinale da, eta baita aurrera jotzeko aukera ere.

Elgoibarko enpresen egoeraren eta gainontzekoen artean badago desberdintasun nabarmenik?

Ez, bertuteak eta erronkak antzekoak dira.

Zertan hobetu da nabarmen sektorea?

Ekoizpena ondo joan da aurreko urtean, eskari sarrera indartsuari esker. Bereziki ondo ibili gara atzerriko merkatuetan eta barne merkatuan. Estatuko enpresa erabiltzaileen kontsumoa, nahiz eta hazi, oraindik guk espero baino baxuago dabil. Ea bienalak aurrera begira bultzada ematen dion. Lau arlotan hobetu beharko genuke.

Zein arlotan?

Nazioarte mailan, nahiz eta arlo honetan gogor ibili, oraindik gure sareak sendotu egin behar ditugu, merkatu askotan gure presentzia indartuz. Bezeroarekiko gertutasuna eta zerbitzu azkar eta aproposa eman behar dira. Antolaketari dagokionez, azken kudeaketa-erremintak barneratzen jarraitu behar dugu sektore aurreratu eta emankor bati dagokion bezala. Berrikuntzan, arlo guztietan eman behar diogu gogor: teknologian, marketing-ean, antolaketa mailan, pertsonen kudeaketan (hezkuntza eta garapen profesionala). Gazteei gure sektorea interesgarri egiten saiatu behar dugu egunero.

Europako hirugarrenak omen gara. Oso urrun gaude lehen dauden bi herrialdeetatik?

Bai, Europako Batasunean hirugarrenak ga-

Erreminta-Makinaren 25. bienala

ra baina aurretik ditugu Alemania eta Italia, eta zenbatekoetan nahiko urrun daude. Teknologia alorrean oso lehiakorak gara eta askotan euren mailan gaude. Baina, egia esateko, ekoizpenean oraindik bide handia dago egiteko. Orain dela urte batzuk, Frantzia eta Britainia Handiaren atzetik genbiltzan eta haiei aurrea hartu diegu. Oraingoa zaila da.

Alemania eredu da ingeniartzan. Gugandik ere ikasi dute?

Alemania eredu da industrian. Eurengandik asko ikasi dugu historikoki. Industriari ematen dioten garrantzia Euskadiren pare dago eta eredu hori jarraitu behar dugu. Ez dakit gugandik ikasten duten ala ez baina horrek ez gaitu kezkatu behar, nahikoa dugu aurreko trenean jarraitzearekin.

“Sektorea sendo dago; lan asko egin dute enpresek eta erronkak ugariak eta latzak dira”

Espioitza badago mundu honetan. Aurkariaren produktuak eta lan egiteko modua aztertzeko?

Aztertze horri orain *benchmarking* deitzen zaio. Ezagutza oso azkar mugitzen da leku batetik bestera eta aldamenekoak egiten duena kontuan eduki behar da jokoan kanpo ez geratzeko. Hortik espioitzara tarte handia dago eta ez nuke horrela hitz egingo. Geure sektorean ahalmen handia lortu dugu gure berrikuntza propioak ateratzeko, besteei koptatzeko beharra eduki gabe.

Deslokalizazioa lelo zaharra da. Hasi besterik ez da egin?

Enpresa amerikarrak mende bat baino gehiago daramate prozesu honetan, baina egia da azken bolada honetan azkartu dela. Nik multilokalizazioa deituko nioke. Nazioartean herrialde bakoitzak dituen abantailak aprobetxatzea da, erosteko, saltzeko, ekoizteko. Multilokalizatu duen herriak beti hazkundera izaten du eta multilokalizatzen den herrian ere gauza bera sortzen du. Normalean bi herriek irabazten dute.

Zertan eragin dizue?

Bi modutan eragin digu: batetik gure bezeroak mugitzen diren lekuetan egon beharra, eta bestetik, esan dudana bezala, mundua saltzeko, erosteko eta ekoizteko aukeratzat hartu beharra. Hala ere gure sektorea ezagutza sektorea da, eta ezagutza beste leku batera eramatea ez da ariketa erraza. Badugu nahikoa bide hemen duguna hazten eta hobetzen.

Txinak lider izan nahi du alor guztietan, baita sektore horretan ere. Kantitatea bai, baina kalitatea ere parekoa dute?

Txina munduko herrialde handiena da eta munduko lehen ekonomia izatera iritsiko da. Horrek ez gaitu izutu behar. Gu ez gara munduko lehen ekonomia eta badaukagu gure lekua, eta edukiko dugu etorkizunean.

Tradizioa balio erantsia da?

Gure produktuek balio erantsia eduki behar dute merkatuetan txinatarren aurka eta beste guztien aurka lehiatzeko.

Lehen marketinga aipatu duzu. Hobeto saltzen ikasi behar dute enpresek?

Egia da marketingaren arloan oso jarduera sakona daukagula martxan eta horrela jarraituko dugu. Oraindik gure sektorean, gure errealitatea benetan denaren eta bezeroak eta gizarteak nabaritzen dutenaren artean

tarte handia dago, eta hori aldatzea gure eta enpresen lana da. Enpresek ondo saltzen duten ala ez erabakitzea ez da gure lana, baizik eta eurek egiten duten lan onari gure apurtxoan erantzea.

“Frantzia eta Britainia Handiaren atzetik genbiltzan orain dela urte batzuk, baina aurrea hartu diegu”

Ortuetatarrak ere lotuta daude AFMren ibilbidearekin. Zer izaera eman dio aitak elkar-teari eta zer, zeuk?

Egia da Ortueta abizena eta AFM urte askotan loturik egon direla. Albertok 33 urte egin zituen zuzendari, eta nik 10 daramatzat elkartean, eta azkeneko biak postu horretan. Albertok, bere nortasuna bakarrik ez, bere balioak eta egun ezohiko den gaitasuna eman zion. Gaur egun berari eta AFMko lantalde guztiari esker, AFM Estatuan dauden industria-sektore elkarte guztien artean garrantzitsuenetakoa da. Gure elkarkideen, instituzioen eta beste elkarten errespetu osoa irabazi dugu. Albertok, bestalde, AFMko lanaz gain etxean gure amarekin batera hiru seme hezi ditu, haien tartean ni neu. Berarekin ikasteko lain izan naizen heinean, AFMn berak egindakoari jarraitu, eta daukagun talde ezin hobearik etorkizunean gero eta hobeak izaten saiatzen naiz. Nire lana gure lan-taldeak dituen ahalmen guztiak kanpora ateratzen laguntzea da.

- Konpromisoa inguruarekin
- Kooperazioa pertsonen artean
- Partaidetza
- Berrikuntza

more

Gure konpromisoa...
Hobetzen jarraitzea
azken aurrerapen eta
teknologia arloko soluzioak eskaintzeko
artezketa, torneaketa
eta **ebaketa-zulaketa** arloan.



more
DANO**BAT**
much more than machines

Arriaga kalea, 21
20870 Elgoibar SPAIN
Tel. +34 943 74 80 44
danobat@danobat.com
www.danobat.com

25 BIEMH

HALL1, STAND D24/F23



Domeka gauean filmerik ez emateko erabakia hartu du Udaleko kultura sailak, ikusle kopuru txikia dela-eta

Herriko Antzokian zine sarreraren salmentak erdira egin du sei urtean

Domeka gaueko zine emanaldia kentzeko erabakia hartu du Elgoibarko Udalak. Neurria apirilaren 6an sartuko da indarrean. Izan ere, herriko Antzokiko zine ikusleen kopurua erdira jaitsi da azken urteotan, Udaleko Kultura Sailak emandako datuen arabera. 2001ean 19.030 zine-sarrera saldu zituzten eta iaz, 9.017. Domeka gaueko emanaldiek erakartzen dute jende gutxien. Proiektzioa ikusle bakar batentzat eman behar izan dute inoiz.

Joan den urtean 2006an baino 848 ikusle gutxiago joan ziren zinera. Abenduan joan zen jende gehien, 1.221. Ekainean, berriz, 573 ikusle baino ez ziren joan zinera.


Iaz *El Orfanato* filmak erakarri zituen ikusle gehien (309). *Los Psimson* ikusteko 301 sarrera saldu ziren eta *Piratas del Caribe* 3 filmarako 276 sarrera saldu ziren.

Ikuskizun eszenikoak

Udaleko Kultura sailak nagusientzako antolatutako ikuskizun eszenikoek 1.960 lagun erakarri zituzten iaz. *Ama,*

quiero ser lehendakari antzezlanak izan zen denetarik jendetsuena, 400 lagun batu zituen-eta. Black Heritage Singers taldearen gospel kontzertua eta *La tabernera del puerto* zarzuelak ere Antzokia ia-ia bete egin zuten.

Umeentzako ikuskizun eszeniko gehienetan sarrera gutxiago saldu izan ziren. Hala ere, Pirritx eta Porrotx pailazoan saioa ikusteko 1.400 lagun batu ziren. Denera, 2.098 ikusle izan zituzten umeentzako ikuskizunek.



Goian, zine ikusle kopuruaren grafika

2007ko FILM IKUSIENAK

IKUSLE KOPURUA

<i>El Orfanato</i>	309
<i>Los Simpson</i>	301
<i>Piratas del Caribe</i>	276
<i>El Perfume</i>	265
300	257

ESKERTZA



2008ko otsailaren 20an Markinan hil zen, 40 urte zituela, *Agustin Etxeberria Alonso* jaunaren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA



2008ko otsailaren 26an hil zen, 93 urte zituela, *Angeles Okina Kortazar* andrea sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Sasoi berria Kuban?

Elgoibarren bizi diren bi kubatarrekin hitz egin du

Mundu osoko komunikabideei erreparatzen badiegu, Kuban aldaketa nabarmenak gertatu dira Fidel Castrok boteari adio esan dionetik. Kubako hedabide ofizialek, ordea, ez dute zalantzan jarri sistemaren zilegitasuna eta uhartean bizi diren herritarrak ez dira harritu Castroren estrategiarekin, bere anaia Raul gobernuburu izendatzean. Reiner Marron Arnau eta Carlos Otermin Torres ere, Elgoibarren bizi diren bi kubatar, ez dira harritu. Azken egunotako informazio zaparrada erantsi dute eta, kezka jota, etxera behin eta berriz deitu dute benetan egoerak hobera egin duen jakiteko. Lasai topatu dituzte euren familiak, betiko moduan. Reiner Marronek eta Carlos Oterminak adierazi digute badela gauzak aldatzeko garaia, gobernu kide nagusienak kargua lagatzeko eta sasoi berrietara egokitzeko



Fidel Castroren osasun egoerak ikusmin handia sortu du azken hila-beteotan eta espekuzazio askoren ostean, azkenean gobernuburu izateari ezekoa esan dio 49 urte luzetan Kubaren patua erabaki eta gero. Hori da komunikabideetako titularretan adierazi den mezua, baina Elgoibarren bizi diren Reiner Marron eta Carlos Otermin kubatarrek mesfidati agertu ziren albisteon aurrean. “Kanpoan gauden kubatarrok arretaz jarraitzen ditugu albisteak, familia dugulako han. Betiko egoeran daude. Betiko alderdia dago boterean, legedia ez da aldatu eta Fidel Castrok esan zuen bezala, sistemaren babesle fidelak izango da”, adierazi du Carlosek.

“Gobernu horretako kideak agintzen dauden bitartean, nekez egingo dira aldaketak”, azaldu dute. Castroren izakera eta diskurtsoek hainbesteko eragina izan duen Gobernuan, litekeena da bere anaiak ere bere nortasun propioa ematea. Ildo horretan, zerbait irekiagoa dela uste dute, krisi garaian ere kanpoko inbertsioaren alde agertu baitzen.

Belaunaldi berriak

Gobernuan dauden politikari nagusi eta zaharkituen aurrean, Kuba gizarte gaztea da. “Belaunaldi berriek ez zuten agintean daudenen iraultzaren bizipen hori sentitu eta sasoi berrietara egokitzeko eskatzen dute. Egoera ekonomikoa kaxkarra da, eta



askok alde egin behar izan genuen. Ez gara erbesteratuak”, esan dute. Komunikabideetan oihartzun handirik izan ez duen beste pasadizo bat ekarri dute gogora. Orain aste batzuk, Fidel Castro Gobernuan zela, agintari batzuk Unibertsitateko ikasleekin hitz egiten egon ziren. Ikasle batek Boliviara joateko nahia agertu zuen, bertan Che Guevara hil baitzen, eta familiarekin hara joan nahi zuela adierazi zuen, omenaldia egitera bidaia ordainduta. Debekuen aurrean, galdetu zien zergatik ez zuen baimenik, eta agintariak zera argudiatu zion: “guztiek gauza bera egingo balute, aireko-eremua kolapsatu egingo zen”. Lehen aldia zen gazteek aurre egiten zietela. Beste ikasleren batek ez zuen ulertzen zergatik ezin duten sartu hoteletara edo kalean atzerritarrekin ibili. Elgoibarko bi kubatar hauentzat gaur egungo egoeraren argigarri dira adibide horiek. Orain arte, horrelako egoeraren bat ezinezkoa zen euren ustez.

“Raul Castro negozio gizona da eta badaki inbertsioak egin behar direla”

Baliabide falta

Reiner iaz izan zen Kuban. “La Habana hondatuta ikusi nuen. Nire neskak esaten zuen jendea etsita zegoela, edozer saltzeko prest”, dio. Familia han badute ere, gero eta lagun gutxiagok jarraitzen dute han. “Nire lagun gehienek alde egin dute eta asko Ameriketako Estatu Batuetan daude”, kontatu du. Etokizunera begira ere, jende-

ak hanka egiten jarraituko omen du, dagoen sistema emankorra ez delako. “Kubak ez du azpiegitura nahikorik. Turismotik bizi da, garai batean kanaberatik. Soviet Batasunaren anaia txikia izan gara eta denetik ematen ziguten azukrearen truke”, gogoratu dute.

Orain Venezuelako Hugo Chavez agintaria bihurtu da Kubaren lagun eta kide. “Medikuak eta erregaiak tartekatzen dituzte bereziki. La Habana astero bi hegazkin heltzen dira Caracasetik operatzeko zain dauden gaixoz beteta. Eta Kubako mediku onenak kanpoan daude. Ikasle palestinarrek eta kanpokoak daude praktika lanean. Dena den, Kuban oraindik medikuntzaren maila ona dela diote.

Okerrago ezin

Itxaropena ez dute galdu erabat eta ez dute uste egoerak okerrera egingo duenik. “Raulek ministroak aldatu ditu eta bere koadrila sartu du. Berrikuntza gehienak ekonomian egingo ditu”, diote. Uharte osoa castrotarren esku omen dago, eta polizia beretik daudela diote kaleak eta bazterrak.

Enbargoaren kasuan, Carlosek gogoran du min asko eragin duela, baina “enbargoa kentzea ez da soluzioa”. Izan ere, haren ustez “negozio bikoitza” da: “Amerikarrek eta ahal duten guztiek Kubari zurrupatu egin diote, diru-iturri guztiak kenduz. Baina egia da enbargoarekin jende umila dela sufritzen duena”.

Carlosek eta Reik ez dakite Kubara itzuliko diren behin betiko han bizitzeko, denbora asko falta baita aldaketa sakonak egiteko. Elgoibarren ezagutu zuten elkar La Habanan ia alboan bizi baziren ere. Baitokorrak izan nahi dute, eta lasai bizi. Gainera Kubara joatea gomendatzen diete herrialde hura benetan nolakoa den jakin nahi dutenei.

Fidel Castro

Iraultzaren arima eta zaindaria



Hamabi urte zituela, Castro gazteak burutazio gogoangarri bat izan zuen. Garaiko Ameriketako Estatu Batuetako Roosevelt presidenteari gutun bat bidali zion, sekula hamar dolarreko billete bat ikusi gabe zuela-eta, haietako bat bidaltzeko eskatu zion. Bitxikeria hori haren erregimenaren aurkakoez errepikatzen dute Castroren izaera zehazteko.

Fidel Castro 1926. urtean jaio zen, jatorri galziar familia baten babesean. Txikitatik hanbizio handia izan zuen, eta hiru karreratan eman zuen izena. 1953. urtean Fidel Castrok gidatutako talde iraultzaile batek Batistaren diktaduraren aurkako borroka armatuari ekin zion, baina gerrillariak atxilotu, epaitu eta kartzelaratu egin zituzten. Amnistia eman ziotenean, Mexikora atzerriratu zen Fidel Castro. Han, Ernesto Che Guevararekin batera, *Uztailak 26* mugimendua antolatu zuen. Kubara joan eta Sierra Maestrara sartu ziren (1956); bertatik Batistaren aurkako gerrilla-gerrari ekin zioten. Handik bi urtera, Batistak alde egin behar izan zuen. Urrutia errepublikako lehendakari eta Castro lehen ministro izendatu zituzten. Bertan jardun zuen oraintsu arte.

MIKEL LEON

Xake jokalaria



Elgoibarko xake taldea lehen postuan dago Gipuzkoako hirugarren mailako ligaxkan. Horrela jarraituz gero, igoera fasea jokatuko dute eta bigarren mailatik gertuago egongo dira. Hasiberriak eta eskarmentu handiko xake jolakariak itxaropentsu daude. Mikel Leonek hamabi urte daramatza taldean, xake-eskolak ematen ditu eta partida erabakigarri horien zain dago. “Beste multzoko taldeak teorian oso maila ona dute, baina jokatu arte ez dakigu”, adierazi du.

“Bigarren mailan egon beharko genuke”

Egon beharko zenuketen mailan zaudete?

Ez. Pasa den urtean mailaz jaitsi ginen eta ez ziren gauzak ondo egin.

Zer pasatu zen iaz?

Jende gehiegi zegoen taldean. Gainera zortzi puntu kendu zizkiguten, behar bezala ez jokatzeagatik. Behean geratu ginen. Orain dugun mailarekin erraz igoko gara. Gutxienez igoera fasean egongo gara; bigarren mailan egon beharko genuke.

Lehen mailan ere egon zen xake taldea. Urrun dago?

Orain 5 urte lehenengo mailan egon ginen. Jende nagusi gehiago zegoen eta irabaztearen jokatzen genuen. Astero lau lagunek jokatzen dute. Badakigu gazte batzuek ez dutela irabaziko, baina guretzat garrantzitsua da jokatzea. Esperientzia hartzeko bide bakarra da. Itxaropentsu gaude, baina ez dakigu beste multzoetan zein maila dagoen.

Zenbat aldiz jokatu duzu ligaxka honetan?

Behin, eta gainera galdu egin nuen. Nahikoa lan ona egiten ari dira taldekideak, ni eta beste batzuk izan ezik.

Lehen partidari ez zineten oso fin aritu...

Eibarren aurka berdinketa lortu genuen. Gainontzeko partidak irabazi egin ditugu.

Partida gogorrena zein izan zen?

Behin ia lau orduko bat jokatu nuen. Araudiaren arabera, ezin da lau ordu baino gehiago aritu. Sei ordu ere jokatuta nago duela asko. Hasi nintzen arratsaldeko lauretan eta hamarretan bukatu nuen.

Gelditu gabe?

Paseotxo batzuk egin eta trago batzuk hartu genituen, lasai-lasai. Eskerrak elkarte batean geundela! Xakea ez da jendeak usate duen bezain aspergarria. Hori esaten duenak ez daki ondo nola jokatu behar den. Estrategiaren bat erabili behar da xakean jokatzeke.

Zurea zein da?

Lehen *a por todas* joaten nintzen; orain guztiz kontrakoa egiten dut. Asko ikasi behar da xakean jokatzeke, eta orain joko defentsiboa daukat.

Zientzietakook trebeagoak zarete?

Hori diote. Mila liburu daude ikasteko, eta horiek buruz ezin dira ikasi. Logika garrantzitsua da. Gertatu izan zait liburu batean ikusi dudana partida bat jokatzea.

Iñaki Sagarna txapelduorde geratu da Euskadiko kros txapelketan

Neskek hirugarren postua lortu zuten infantil mailan



U rte hasiera bikaina izaten ari da Mintxetako Atletismo taldea. Pasa den astebukaeran Amurrion jokatu zen Euskadiko kros txapelketan emaitza paregabeak lortu zituen. Iñaki Sagarnak orain dela astebete Hernanin jokatu zen Gipuzkoako Txapelketan egin zuen postua errepikatu zuen 3.500 metro zirkuituan. Taldeka, laugarren postuan sailkatu ziren Mintxetako mutilak. Neskek, berriz, 2.300 metroko zirkuituari egin zioten aurre eta aurreneko postue-

tan sailkatzea lortu zuten. Horri esker, taldekako hirugarren postua eskuratu zuten.

Gipuzkoako txapelketa

Lorea Santiagok Gipuzkoako Kros Txapelketa irabazi zuen otsailaren 17an Hernanin alebin mailan. Mintxeta Atletismo taldeak lehen postua lortu zuen nesken alebin mailan, eta bigarren geratu ziren nesken eta mutilen infantil mailan, eta seigarren mutilen alebin mailan.



Bizikletan ibiltzeko arropak jarri ditu salgai Kirol Patronatuak

Udal Kirol Patronatuak ateratako bizikletan ibiltzeko arropen esker, Elgoibarren izena zabaldu ahal izango dute txirindularitza zaleek aurrerantzean. Jantziok eskuratzeko martxoaren 7a baino lehen pasa behar da Olaizaga kiroldegitik. Honako jantzi hauek jarriko dituzte salgai: kulote motza eta luzea, maillot luzea eta motza, windtex-a, piratak... M, L eta XL neurrian.

EMAITZAK

FUTBOLA

- Haundi **0** – Durango **2**
Amaiak bat **3** – Elgoibar **1** (erreg.)
Elgoibar **2** – Hernani **2** (jubenilak)
Beasain **3** – Elgoibar **0** (kadeteak)
Idiazabal **0** – Elgoibar **0** (infantil 1)
Elgoibar **2** – Bergara **2** (infantil txiki)

ARETO FUTBOLA

- Kenci **4** – Eskoriatza **2** (euskal liga)
Azpeitiko **3** – Elgoibar **2** (jubenilak)

XAKEA

- Lerun Eloibar 19,5 puntu
- Eibar 17,5 puntu
- Tolosa-Ibarra B 17 puntu

ESKUBALOIA

- Ereintza **20** – Tecnifuelle **18** (senior neskek)
Pneumax **21** – Arrate **31** (jubenil mut.)
Tecnomeca **9** – Arrate **34** (kadete mut.)
Kulullaga **30** – IMH Elgoibar **37** (kadete neskek)
Leizaran – Cometel Elgoibar ez dute jokatu
Zarautz **7** – Aterpe **20** (infantil neskek)
Zarautz **28** – Caldereria Lili **11** (infantil neskek)
Hotel Txarriduna **19** – Arrate **19** (infantil mutilak)
Bankoa **15** – Ereintza C **17** (infantil mutilak)
Casa Astigarraga **15** – Bera bera **21** (infantil neskek)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

- Domeka, 1
13:00 Elgoibar – Deutsche Schule

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

- Zapatua, 8
12:00 Aterpe – Arrate (infantil neska)
17:00 Tecnifuelle – IES Construcción (sen. neskek)
Domeka, 2
11:00 Caldereria – Aloña (infantil neskek)

LANA

ESKAERA

- Neska, nagusiak zaintzeko edo garbiketarako orduka egiteko. **☎ 686 127 137**
- Neska, nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako orduka egiteko. **☎ 648 603 029**
- Mutila, zerbitzari lana egiteko prest. Urteetako eskarmentua. **☎ 617 061 140**
- Emakumea, dendari laguntzaile edo pertsona helduak zaintzeko. **☎ 943 530 243 / 648 505 256**
- Neska, pertsona helduak zaintzeko prest. **☎ 616 230 814**
- Neska, pertsona helduak zaintzeko, garbiketarako edo sukaldarian laguntzaile aritzeko prest. **☎ 638 338 816**
- Emakumea, arratsalde 16:00ak eta 19:00ak bitartean helduak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako prest. **☎ 639 240 038**
- Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak edo umeak zaintzeko, tabernan zerbitzari, garbiketara lanetarako... **☎ 680 250 527**
- Neska, garbiketara lanetarako, nagusiak zaintzeko edo orduka lan egiteko prest. **☎ 686 127 137**
- Neska, garbiketara lanetarako, nagusiak zaintzeko edo tabernan zerbitzari izateko prest. **☎ 649 368 137**
- Neska, lanerako prest. **☎ 658 400 556**
- Neska, nagusiak edo garbiketara lanerako prest. **☎ 678 939 382 / 649 212 944**
- Neska, nagusiak edo garbiketara lanerako prest. **☎ 646 821 678**
- Mutila, haragitegian lan egiteko prest. **☎ 610 913 340**
- Ingeniaritza titulatuak matematikako eta kimikako eskola partikularrak emango lituzke lauko taldeetan. **☎ 605 737 523**
- Neska gaztea 12:00etatik 18:00etara lan egiteko prest, orduka. **☎ 659 866 116**
- Neska gaztea, nagusiak edo helduak zaintzeko prest. **☎ 616 230 814**
- Neska nagusiak zaintzeko prest, bakarrik arratsaldetan edo gauean, orduka ere bai. **☎ 671 476 869**
- Neska tabernan lan egiteko, garbiketara lanetarako edo nagusiak zaintzeko prest. **☎ 686 234 612**
- Neska, sukaldarian laguntzaile edo nagusiak zaintzeko prest. **☎ 699 813 826**
- Bi neska gazte tabernan zerbitzatzen, nagusiak zaintzeko edo garbiketara lanetarako prest. **☎ 696 665 304**

- Gizon gaztea edozer lanetarako prest: peoi, zaintzaile, sukaldari laguntzaile... Ingelesez ere badakit **☎ 697 538 610**
- Emakumea, garbiketara lanak egiteko edo nagusiak ordu batzuetan zaintzeko prest **☎ 943 742 201 / 652 715 908**

ESKAINZA

- Haur Hezkuntzako 1go ziklorako (0-3 urte) teknikarien lan poltsa osatzeko curriculumak behar dira. **elgoibar@ikastola.net**
- Sukaldaria eta zerbitzaria behar dira. **☎ 943 743 196**
- Sukaldaria behar da Mendaroko kafetegiri batean. **☎ 943 030 150**
- Artikuluak katalogoz saltzeko prest dauden laguna behar dira. Diru-sarrerara on. Ez da esperientzia beharrezkoa. **☎ 607 824 892**
- Emakume euskalduna behar da nagusi bat ordu batzuetan zaintzeko, beharrezkoa da autoa edukitzea. **☎ 699 217 721**

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

- Etxea salgai Erretxindin. Lau logela, sukalde berritua, eguzkitsua, ganbara, balkoi handia. Altxariekin saltzen da. **☎ 628 115 677**
- Pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukalde, komuna, jakitokia, kafetak-zioa, oso argitsua, bizitzera sartzeko modukoa. Prezio interesgarria **☎ 615 769 650**
- Urasandin pisua salgai. Hiru logela, egongela, jangela, komuna, sukalde eta trasteroa. 89 m² **☎ 607 743 068**
- Etxea salgai Sigman. 60 m², logela bi, egongela, komuna, sukalde handia balkoiarekin. Berritua eta oso eguzkitsua. **☎ 636 274 420**

ALOKAIRUA

- 95 m² lokala alokatzen da. Bi sarrera ditu, bata San Frantzisko kaletik eta bestea Urruzuno kaletik. **☎ 943 740 009**

GARAJEAK

- Marradun garaje estalia salgai, ikastola ondoan. 7.500 euro. **☎ 943 743 578 / 639 502127**
- Garaje itxia salgai pista beltzean. **☎ 943 742 306**
- Garaje itxia salgai Mugerza kalean. **☎ 943 441 436**
- Marradun garajea alokatzen da, altzari handia du. Auto edo motorrentzako aproposa. 35 euro hilabeteko. **☎ 616 111 603**

MOTORRA

- Autoa salgai, Suzuki Vizara, hiru ate, 1.9. diesela, 2000. urtekoa. **☎ 943 254 366** (14.00etatik aurrera deitu) / **654 949 123**
- Motorra salgai Shooter Aiyumo, 125 cc. ditu; sei hilabete eta bermearekin. **☎ 670 957 036**
- Motorra salgai 49 cc. ea 1000 kilometro. 2007ko abuztuan matrikulatua. Osagaiak: kaskoa, doan lapurren aurkako kandadua, atzealdeko arkoa. **☎ 663 117 444 / 943 744 031**
- Ford Focus 2.0 16v. 130 zaldi. Llantak, Pionner irratia, beltza metalizatua, egoera oso onean. 5.500 euro negoziagarriak. Transferentzia nire esku. **☎ 660 056 240**
- Citroen saxo diesela salgai. **☎ 639 572 532**
- Mutrikun ezarritako karabana salgai. Extra asko. **☎ 943 743 923 / 629 415 984**

BESTELAKOAK

- Alemaniano 19 urteko neska batek bi hilabeteko egonaldirako familia behar du *au pair* egoteko. **☎ 635 706 537**
- Eraztuna galdu da, balio sentimental handikoa, Jai Alai tabernan otsailaren 23an. Aurkitu duenak udaltzainei laga diezaiotela. **☎ 943 744 483**
- Etxetresna elektrikoak, altzariak, oherako erropa... behar dira. **☎ 676 444 171**
- Erori da elastiko polar gorri-naranja zintzilka zegoen balkoi batetik. **☎ 943 741834**
- Zero Sette trikiritza erosiko nuke. **☎ 655 742 836**
- Garaikurrak grabatzeko hiru makina frantziar saltzen dira. Galagarza Erlojundand salgai.
- Pisua konpartitzeko laguna behar du. **☎ 610 458 552 (Nerea)**
- Deban alokairurako pisu bat behar dugu. **☎ 636 690 861**

ABISUAK

- Txori bat aurkitu da bi uztaiz hankean dituela, berde eta hori kolorekoa **☎ 696 608 485**
- Erretxindin argazki kamera lapurren egin zuten hilaren 12an, arratsaldeko 19:00ak eta 21:00ak bitartean. Txartela duenak laga dezala Correoseko 178 posta-kutxan.
- Sofa bat eta bi besaulki oparitzen dira, multzoan. Baita ohe handi bat ere. Galagarza erloju-dendan galdezu.
- Baratza konpartitu nahi dut, alde zaharretik gertu dago. Ura du, simarra eta lan egiteko erremintak. **☎ 655 723 678 / 943 743 919**



BEKAK

IKERKETA BEKAK
Errenteriako Udala. Koldo Mitxelena Ikerketa-beka euskal kulturari buruzko ikerketa alor guztietan sustatzeko, soziologia, historia, artea, antropologia, ekonomia, hizkuntzalaritza, literatura, etnologia, zuzenbidea eta giza zientziak orokorrean. Epea: Otsailaren 4tik apirilaren 18ra.

BOLUNTARIOAK

Unesco Etxea. Unescoren beka programa euskal lankide boluntarioentzat
Epea: Martxoak 20.

GAY, LESBIANA ETA TRANSEXUALAK

Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.. Gay, lesbiana eta transexualentzako jarduerak garatzen dituzten entitateentzako laguntzak. Epea: Martxoaren 25a.

HIZKUNTZAK

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa. 2008ko udan atzerrian frantseseko edo alemaneko ikastaroak egiteko laguntzak unibertsitateko edo goi mailako irakaskuntza artistikoetako ikasleentzat. Epea: Martxoak 27

IKASTAROAK

ARGAZKILARITZA

Club Vasco de Camping. Turismo, bidaia eta mendi argazkilaritza ikastaroa. Epea: Apirilak 7

TOKIKO GARAPENA

Larrialeak Taldea. Toki-garapeneko agente eta dinamizatzailea izateko ikastaroa (380 ordu). Epea: Plazak bete arte.

LEHIAKETA

Amurrioko Udala. Film Laburren lehiaketa. Epea: Martxoaren 14a

ELGOIBARKO GAZTE INFORNAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
☎ 943 741 461
Asteartetik ostiralera
17:00 - 20:00




• Zorionak, **amona**, 91 urte egiten dituzulako. Muxu handi bat zure seme eta biloben partez.



• Zorionak zure semeen partetik. Muxu handi bat.



• Zorionak, **Izar**, sei urte egiten dituzulako amatxo, aitatxo eta familia osoaren partez.



• Zorionak, **Ibai**, hilaren 25ean bi bi urte egin zenituelako. Guraso eta familiararen partez muxu bat.



• Gutxitan betetzen dituzu, baina aurten ospakizun eder bat egiteko moduan gaude. Beee!



• Zorionak, **Ane**, 28an bi urte egin zenituelako. Mila muxu gurasoen partez sorgintxo!



• Mutil jatorra zara **Mikel**. Hilaren 26an sei urte egin zenituen. Jaso itzazu zorionak senideon partez



• Zorionak, **Jone**, martxoaren 2an hiru urte beteko dituzu-eta, Sara eta gurasoen partez muxu bat!



• Zeinek esango zuen **Ane**, orain dela 14 urte, honelako neska xarman-garria izango zinela!



• Zorionak, **June Fidalgo**, lau urte egiten dituzulako. Patxo handi bat.



• Zorionak, **Ander!** Hurrengo asteazkenean 2 urte beteko dituzulako. Familia eta bereziki Mikelen partez.



• Zorionak, **Naia!** 27an urtetxo bat egin duzulako, etzekoen eta batez ere Juleneren partez.

ZORIONAK!



Zorionak kuadrilla, hilabete honetan urtebete egin duzuelako, muxu handi baina ikastolako laguntxo guztien partez!!!

OKINDEGIA

2 igandea **FOTERO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 29 Garitaonaindia
- 1 Yudego)
- 2 Yudego
- 3 Zabaleta
- 4 Etxeberria (*Errosario*)
- 5 Ibañez
- 6 Bidasolo
- 7 Etxeberria (*Santa Ana*)

Escala

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik www.elgoiBARREN.net/en

29 barixakua

16:30 Sukaldaritza tailerra

Ludotekan.

17:00 Sukalde txokoa

Pizzak egiten ikasiko dute Gaztelekuan.

19:00 Musika Eskolako kontzertua

Inazio Bereziartua Musika eta Dantza eskolako taldeek kontzertua eskainiko dute. Musika Eskolako auditorioan.

1 zapatua

11:00 Ate irekiak IMHn

IMHko Ingeniaritza Eskolako ate irekiak.

11:30 Aisialdiko ekintzak

Atxutxiamaiak antolatuta, jolasak, musika, tailerrak eta animazioa.

Plaza Handian.

13:00 Ezker Abertzalearen ekitaldia

Independentziaren aldeko ekimena.

Plaza Handian.

21:00 Barrikotea

Kimetz Elkartearen. 18 euro.

19:00 Erakusketa

Agurtzane Sololuzeren "Seina eta Luze" erakusketa inauguratuko da.

Kultur Etxean.

22:30 Kontzertua

"Ipar haizea" eta "Garabi" taldeen kontzertua Gaztetxean.

2 domeka

10:00 Mendi irteera

Ikastolako guraso taldeak antolatuta, Iri-mora (895m) joango dira. Irteera Ikastolatik.

18:30 Paradisu Zinema

Gaztetxean.

3 astelehena

8:00 Erakustaldia

Ofizioen Jardunaldiak Erreminta Makinaren museoan. Martxoaren 3tik 8ra bitartean errementari bat sasoiko tailer batean lanak egiten ikusteko aukera.

11:00 Ikastaroa

16 urtetik gorakoentzat doako internet ikastaroa KZgunean.

4 martitzena

17:30 Zeramika tailerra

Gaztelekuan

19:00 Antzerki tailerra

Taupadak antolatuta, Kultur Etxean. Hilaren 6an, 11n, 13an, 18an, 25ean eta 27an izango da. Informazioa: 943 743 655

ESKERTZA



"Armario"

Garate eta Leiaristitar Pedro Mari

2008ko otsailaren 22an hil zen 52 urte zituela

*Neketsua izan da
bizitzako bidea.
Ez genuen uste
baina heldu da zurea.
Inoiz ez dogu ahaztuko
zurekin egindako ibilbidea.
Etxekoen aldetik
agur Pedro Mari maitea.*

*Pedro Mari Garate Leiaristi jaunaren sendiak
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola
hileta elizkizunetara agertu izana.*



6 eguena

16:30 BARREnera bisita

Ludotekako umeek BARREN astekaria bisitatuko dute.

17:30 Zeramika tailerra

Gaztelekuan

7 barixakua

19:00 Ikastolako ikasleen jaialdia

Ikastolako LHko ikasleen jaialdia. Ikastolako frontoian.

19:30 Piano kontzertua

Itziar Beitia Amondarainek piano kontzertua eskainiko du Musika Eskolako Auditorioan.

20:30 Ipuintxoak eta luntxa

Plaza Txikiko arkupeetan.

Elgoibarko emakumeentzako hitzordua.

22:15 Antzerkia

Te acuerdas abuela? antzezlanak Pok Produzioak taldeak eskainia.

Antolatzaileak: Haizea eta Kultura Saila Herriko Antzokian.



Gure gomendioa

Ofizio zaharren erakustaldia

Martxoaren 3tik 8ra, Erreminta Makinaren museoan

Bilboko Erreminta-Makinaren azokak irauten duen bitartean, Elgoibarko Erreminta Makinaren museoak ofizioen jardunaldiak eskainiko ditu. Aste osoan zehar, erremintari batek nola lan egiten duen ikusteko aukera izango da.

Ordutegia: martxoaren 3tik 7ra: 08:00-13:00 eta 14:30-17:30; martxoaren 8an, zapatuan: goizeko 08:00etatik 14:00etara.



«American gangster»

29, barixakua: 22:15
1, zapatua: 19:00-22:15
2, domeka: 19:00-22:15
3, astelehena: 21:30

«La busqueda»

2, domeka: 16:30

«Lady Chatterley» (Z.K.)

6, eguena: 21:30

I.URTEURRENA



Ramon Untzilla Aranberri

2007ko otsailaren 1ean hil zen 42 urte zituela

*Kaixo Ramon,
ta memorian zure irria
ta memorian zure begiak
ta memorian zure keinua
ta memorian zure izatea
ta memorian bizi zaitugu
ta memorian zure aiduru
ta memorian zaitut katigu
ta memorian zaitut*

Etxekoak

*Bere alde urteurreneko meza izango da, larunbatean,
martxoak 1, arratsaldeko 19:00etan San Bartolome Parrokian.*



herritik kanpo



Estitxu Perea

Lau hilabete daramatza Estitxu Perea Dublinen. Ikasketak amaitu eta lanean hasi aurretik, ingelesa ikasi behar zuela erabaki zuen. “Gerora horrelako aukerarik ez dut izango, eta oraintxe da momentua”, esan digu. Sei hilabeterako joan zen hasieran, baina orain ez daki noiz itzuliko den Elgoibarrera.

“Irlandarrak oso pertsona jatorrak eta bromazaleak dira”



Trinity College

Ingeles maila hobetzea zen zure helburua. Lortu duzu?

Ez zen zaila! Akademia batean apuntatu nintzen eta orain nahiko ondo moldatzen naiz. Bueno, nahiko ondo ulertzen dut, hitz egiten arazoak dauzkat, nire hiztegia eskasa da.

Zer egin zitzaizun zailena?

Aldaketak beti dira gogorak eta, bakarrik etortzean, are eta gogorragoa. Hemengo eguraldia, bestalde, kristoren hotza da eta haizeak toki guztietatik jotzen du. Euria egiten duenean alperrik da aterkia eramatea. Baina azkenean dena da ohitzea eta gogoa jartzea.

Nolakoak dira irlandarrak?

Euskaldunekin zerikusia badutela iruditzen zait. Kulturalki lotura badaukagu eurekin, izakeran eta musikan, gehienbat. Harrituta geratu naiz irlandarrekin: kristoren pertsona jatorrak dira eta bromazaleak.

Tabernetan ezin da erre Dublinen...

Nik ez dut erretzen, beraz, niri oso ondo

etorri zait. Izugarri igartzen da, gehienbat hurrengo egunean, arropak eta batez ere ileak ez daukatelako tabako usainik. Eta onena, ajea erdia dela! Hona etortzen diren erretzaileek gutxiago erretzen dute eta batzuk, erretzeari ere laga egiten diote.

Zuk ere hartzen duzu 17:00etako tea?

Hona etorri naizenetik te ezberdinak probatu ditut, baina ez daude niretzat eginak. Nahiago dut kafea, baina hemen ebaki onak aurkitzea zaila da.

Bisitan joango bagina, zer erakutsiko zeniguke?

Etortzen direnei gauza bera erakusten diet: Dublingo gaztelua, Guinness Storehouse, Trinity College, Temple Bar, Howth... eta amaitzeko tokirik ospetsuenetara, hau da, tabernetara, pintak edatera.

Besterik?

Uharte-Arakileko Nerearen partez, gorantziak eman nahi dizkiet ezagutu dituen elgoibartar guztiei eta, bide batez, etorriko zaretzen guztioi, ongi etorri!



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º - EIBAR
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

B

BARREN


GIDA08

Elgoibar - Mendaro



**Gaur Elgoibar eta Mendaroko
gida komertziala banatuko dugu**

Ez baduzu 2008ko gida jasotzen deitu 943 74 37 04 telefonora



Pok produkzioak antzerki taldea

¿Te acuerdas Abuela?

*Martxoaren 7an, ostirala,
22:15ean*

Herriko Antzokian

*Lierni Fresnedo, Olatz Beobide, Joxelu Berasategi,
Jean-Merie Broucaret, Axen Egaña, Kepa Errasti,
Mikel Laskurain eta Yannick Vergara*

HAUR KABARETA ANTZERKIA

Arrese teatro antzerki taldea

Martxoaren 16an, igandea, 16:30ean
Herriko Antzokian

5 eta 12 urte bitarteko haurrentzat



Kultura saila



Foru Aldundia



Euzko Jaurlaritza



SAREA